

Azaleko gaixotasun kutsagarrien protokoloa ARITZBATALDE KIROLDEGIAN

Igerilekuko erabilera ondorengo hauek arautzen dute: batetik 32/2003 Igerilekuen irizpide tekniko eta sanitarioen Dekretuak eta bestetik, honen men, Aritzbatalde Udal Kiroldegiaren Araubide juridikoak.

Beraietan zehazten da azaleko gaixotasun kutsakorren aurrean: *“Debekatuta dago beste erabiltzaileen osasuna arriskuan jartzen duten gaixotasun edo eta infekzio-kutsakorrak dituzten pertsonak sartzea”*.

Hau horrela, eta azaleko gaixotasun kutsagarrien aurrean (moluskoak etab.) ondorengo PROTOKOLOA beteko da Aritzbatalde kiroldegian.

Hartu beharreko neurriak:

- 1) Pediatrarengana joan eta diagnostikoa jaso, dagokion tratamenduarekin.
- 2) Tratamenduan irauten duen bitartean igerilekura sartu daiteke, **baina tratamendu gabe ezin da igerilekura sartu.**
- 3) Ikastetxetik bazatoz, zure irakasle edo zaintzaileari honen berri eman behar diozu.
- 4) Igerileku barruan:
 - Moluskoak dituzun ingurua estaldu behar duzu tiritara edo apositu batekin.
 - Eskuak garbiak eduki behar dituzu eta estaldutako azaleko zona ez ukitu.
 - Erabiltzen duzun toalla, txankleta,... ezin dituzu partekatu.
 - Tiritara edo apositua askatzen bazaizu sorosleari abisatu eta igerilekutik atera beharko zara.

Aritzbataldeko kiroldegiko Zuzendaritzak unean uneko erabakiak hartu ditzake kutsatutako erabiltzaile kopuruaren arabera.

Informazioa gehiago kiroldegian 943 00 51 23 telefonoan edo kiroldegia@zarautz.org helbidean.